

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

Getxoko Udalaren merkataritza eta zerbitzuen sektoreko establezimenduetan tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta kontsumorako pizgarriak sustatzeko programaren bigarren kanpainari atxikitzeko eta hasteko datak aldatzea. «Getxo 2023 Bona». (Oker zuzenketa).

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2023ko uztailaren 82koa, 145 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Getxoko Udalaren merkataritza eta zerbitzuen sektoreko establezimenduetan tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta kontsumorako pizgarriak sustatzeko programaren bigarren kanpainari atxikitzeko eta hasteko datak aldatzea. «Getxo 2023 Bona».

Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko urtarrilaren 24ko 35. erabakiaren bidez, onetsi zen Tokiko merkataritza txikia suspertzeko eta merkataritza eta zerbitzuen sektoreko establezimenduetan kontsumorako pizgarriak emateko programaren deialdia (Getxo Bono, 2023). Aipatutako oinarriak 2023ko otsailaren 3ko 24. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko uztailaren 18ko 280. erabakiaren bidez, hauxe xedatu da:

1. Getxo Bono 2023 arautzen eta deitzen duten oinarri espezifikoak aldatzea, honako artikulua hauetan:

8. artikulua. — Diruz lagun daitekeen jarduera. 7. atala

— *Non dio:*

2. Urriaren 16tik azaroaren 25era.

— *Hau esan behar du:*

2. Urriaren 19tik azaroaren 25era.

10. artikulua. — Programari atxikitzeko prozesua. 4. atala

— *Non dio:*

Bigarren epea: irailaren 11tik 24ra.

— *Hau esan behar du:*

Bigarren epea: irailaren 4tik 17ra

2. Getxo Bono 2023ri atxikitzeko deialdia aldatzea, honako artikulua hauetan:

4. artikulua. — Deialdia argitaratzea eta eskabidea aurkezteko epea

— *Non dio:*

Bigarren epea: irailaren 11tik 24ra.

— *Hau esan behar du:*

Bigarren epea: irailaren 4tik 17ra.



7. artikulua. — Diruz lagun daitekeen jardueraren xehetasuna. Funtzionamendu eta truke-sistema. 10. atala

— *Non dio:*

2. Urriaren 16tik azaroaren 25era.

— *Hau esan behar du:*

2. Urriaren 19tik azaroaren 25era.

Getxon, 2023ko uztailaren 19an. — Getxolaneko Zinegotzia, Juanma González Mosquera